



# MUGIKORRA DAUKAT (EDO NAUKA)



Aitor  
Mendiluze  
Gonzalez

Bertso  
sortak



Doinua:  
*Egunaren izena /  
Hamarreko txikia*

Batzuetan ez da erraz bereizten nor den noren jabea: guk darabilgun mugikorra, ala mugikorrak manejatzen gaituen gu.  
Zer arau ditugu nork gure etxean mugikorraren erabileraz?

Iphone, BQ, LG  
nahiz Samsung Galaxy  
gurasoei nahi nien  
erosi arazi  
borroka egin dugu  
eta irabazi  
nahiz eta orain arte  
jaio eta hazi  
hau lortu arte ez naiz  
ni bizitzen hasi.

Eta Whatsapp-a ere  
ze asmakizun guai  
testu nahiz irudiak  
partekatzeko gai  
taldeak ere sortzen  
direnez nolanahi  
gonbidapen guztiei  
esaten diet bai  
ez dut taldeetatik  
kanpo geratu nahi.

Lagunekin bagoaz  
edozein tokira  
guztiak mugikorren  
pantailei begira  
mugitzaileak ere  
bilakatzen dira:  
"Parkean seinalea  
ahultzen ari da  
goazen konektatzera  
liburutegira".

Hori bai, gurasoek  
matraka epela:  
"Deitu ia non zauden,  
idatzi bestela".  
Nik erantzuten diet  
garestia dela  
deitu eta mozten dut  
doan da horrela  
eta gero beraiek  
deitu dezatela.

Kamerek zenbat gauza  
grabatzen dituzten  
nahiz ez jakin grabatu  
beharko nituzkeen  
ze ondo pasatzen den  
ondoren ikusten  
baina ez didatenez  
erabiltzen uzten  
gurasoei ez diet  
dena erakusten.

Mugikorrak berea  
egin ez banindu  
ezingo ginateke  
hain lagun egin gu  
kendu ezkerro edo  
uzteko agindu  
ondoan zer gertatzen  
ari den berdin du  
konexiorik gabe  
nireak egin du.



Biribildu ditzagun bertso bakoitzean lehenengo bi puntuak, eta azkenengo bi puntuak.  
Ondoren irakurri ditzagun bi puntu lotuaz zer esaldi osatu dituen Aitorrek. Puntuak jostea  
esaten zaio horri.